

EAEkoekonomiaren hiruhilabetekaria

2014ko 1. hiruhilekoa

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

OGASUN ETA FINANTZA
SAILA
Ekonomia eta Planifikazio Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE HACIENDA
Y FINANZAS
Dirección de Economía y Planificación

LABURPENA

2014ko hasieran, EAEko ekonomiak atzean utzi zituen azken bi urtekoan etengabe jaso zituen BPGaren beherakadak. Hain zuzen ere, lehen hiruhilekoko datua %0,4 izan zen, urte arteko tasan, 2013ko amaieran lortutakoa baino zazpi hamarren hobia baita. Hiruhileko arteko terminoetan ere, emaitza positiboa (%0,3) izan zen eta aurrekoaren antzekoa, suspertzeko joera finkatzen ari dela agerian utziz. EAEko ekonomiak erakusten duen bilakaera ona bat dator inguruneko ekonomien perfilarekin, nahiz eta Espainiak (%0,5) eta, bereziki, Europar Batasunak (%1,4) EAEkoa baino urte arteko hazkunde tasa handiagoak lortu zituzten.

Aurtengo hasieraren ezaugarriak azpimarragarrietako bat barne eskariak balio positiboak berreskuratu izana da, oraindik apalak diren arren. Izan ere, hiru urtez jarraian etengabeko jaitsierak jaso eta gero, barne eskariaren urte arteko tasa %0,1ean kokatu zen. Zeinu aldaketa hori azken kontsumoan eginiko gastuaren portaera hedakorragoaren ondorioa izan zen, aurreko datua ia puntu oso bat hobetu zuelako, %0,3ra iritsi arte. Aitzitik, kapital eraketa gordinak pausu bat atzera eman zuen suspertzeko bidean eta %-1,1eko aldakuntza jaso zuen. Aldagai horren bilakaerak ezagutu zuen galga gainontzeko inbertsioaren ondorioa izan zen (%-1,7), ekipamendurako ondasunei lotutako inbertsioak bere hazkunde tasa zertxobait bizkortu zuen bitartean, %0,4ra arte.

Azken kontsumoko gastuaren barnean, kontsumo pribatuaren (%0,2) gehikuntza nabarmendu behar da, hamabi hiruhilekoz jarraian datu negatiboak pilatu ondoren. Konfiantzaren hobekuntza eta lan merkatuaren narriadura txikiagoa dira emaitza horren atzean dauden arrazoietako bi. Administrazio publikoen gastuak ere balio positiboak (%1,0) berreskuratu zituen, baina gertakari puntual bat izan daiteke, datozen hiruhilekoetan jarraipenik izango ez duena, behintzat indar horrekin.

Kanpo arloak BPGaren hazkundeari egin zion ekarpena positiboa izan zen berriro eta, Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak kalkulatu duenez, lau hamarrenen ingurukoa. Ekarpene hori 2013. urtean egin zuenaren antzekoa da eta datozen hiruhilekoetan motelduko dela espero da, barne eskariak indarra hartzen duen neurrian eta inportazioak areagotzen diren heinean. Aurtengo hasieran, esportazioen (%3,4) eta inportazioen (%2,6) hazkunde erritmoa 2013ko laugarren hiruhilekokoaren antzekoa izan zen, hala termino nominaletan nola errealetan, salmenta prezioak ia aldatu ez ziren testuinguru batean.

Balio erantsiaren bilakaera oso positiboa izan zen urte hasieran eta %0,4 hazi zen urte arteko tasan, berau osatzen duten bi sektore nagusien portaera onari esker. Alde batetik, industria

%0,5 hazi zen eta zerbitzuak, berriz, %0,6. Bai arlo batean bai bestean goranzko joera hauteman da, datozen hiruhilekoetan balio erantsia sendotuko dela pentsarazten dutena. Zerbitzuen artean, administrazio publikoa, hezkuntza, osasuna eta gizarte zerbitzuak biltzen dituen atalaren bultzada garrantzitsua nabarmendu behar da, oro har, %1,9 areagotu zuelako bere balio erantsia. Gainontzeko zerbitzuak izeneko atalak ere balio positiboak eskuratu zituen urte arteko tasan, baina apalagoak (%0,4). Aitzitik, oraindik zailtasunak daude merkataritzan eta ostalaritzan (%-0,2), nahiz eta hobetzeko joera garbia erakusten duten. Azkenik, eraikuntzak %1,4 gutxitu zuen bere balio erantsia, hots aurreko hiruhilekoan baino bi hamarren gehiago. Beraz, bertan behera geratu da, oraingoz bada ere, 2013ko amaieran erakutsi zuen susperraldia.

BPGan mamitu zen hobekuntza lan merkatura ere iritsi zen, enplegu galera puntu erdi bat gutxitu zuelako, urte arteko aldakuntza tasa %-0,5ean kokatu arte, hau da, azken hiru urteko tasarik txikiena. Horrek esan nahi du azken urtebetean 4.500 lanpostu galdu direla. Une hauetan azpimarratu behar den ezaugarririk positiboena hauxe da: enplegu sorrera zerbitzuetan zertxobait bizkortu da, %0,4 arte. Beraz, sektore horrek 2.500 lanpostu garbi sortu zituen. Hala ere, kopuru hori ez zen nahiko izan konpentsatzeko industrian galdutakoak (%-2,0 eta 3.700 lanpostu) eta eraikuntzan desagertutakoak (%-4,9 eta 2.900 enplegu), gehi lehen arloan murriztu diren ehunka batzuk.

BPGaren deflatoareak moteltzeko joera areagotu zuen eta geldotasunetik gertu kokatu zen. Mutur batean, kontsumo publikoaren gorakada bizia dago eta bestean inbertsioaren deflatoarearen jaitsiera esanguratsua. Halaber, aldaketa txikiak gertatu ziren kontsumo pribatuaren eta kanpo merkataritzaren deflatoareetan. Kontsumoko prezioak %0,4 bakarrik igo ziren lehen hiruhilekoan, baina urte arteko aldakuntza tasak %0,6ra jotzen du, azken sei hilekoetan gehien errepikatu den balioa delako. Hala azpiko inflazioak (%0,5 apirilean) nola hondarrekoak (%1,0) igoera motelak izan dituzte. Beraz, ez dirudi indize orokorra aipatu diren maila horietatik oso gorago joango denik.


Azkenik, lehen hiruhilekoko datuak aurreikuspen eredian sartutakoan, ia ez da ezer aldatu aurreko estimazioa eta orain ere pentsatzen da EAEko BPGa %1,0 haziko dela aurreko eta datorren urtean hamarren batzuk gehiago lortuko dituela. 2014an zehar, barne eskariak gora egingo du eta ekarpen handiena egingo dio hazkundeari, kanpo saldoaren tokia bereganatuz. Azken horrek berriro egingo du ekarpen positibo bat, baina inportazioen gehikuntzak protagonismoa kenduko dio. Enpleguari dagokionez, aurreko urtean ez da aurreikuspen lanpostu garbien sorrerarik, baina, aitzitik, landunen kopurua berriro jaitea guztiz baztertua dago aurreikuspen berri honetan.

EKONOMIAREN INGURUNEA


2014ko lehen hiruhilekoan, munduko hazkundeak ez zuen aldaketa handirik erakutsi bere bilakaeran. Izan ere, ekonomia aurreratuek suspertzeko joera finkatzen jarraitu zuten, arlo pribatuaren hobekuntzek eta politika egokitzailleek lagunduta. Azaleratzen ari diren herrialdeek, ordea, beren jardura erritmoa moteldu zela nabaritu zuten, egiturazko oztopoek eta finantzaziorako baldintzen gogortzeak kaltetuta. Hain zuzen ere, ELGEren lehen kalkuluen arabera, ekonomia garatuak, oro har, %2,1 hazi ziren, 2013ko azken hiruhilekoan baino hamarren bat gehiago.

Munduko ekonomia. BPGa Urte arteko aldakuntza tasak


ELGE




Europar Batasuna



AEB



Txina



Iturria: Eurostat eta ELGE.

Txinako ekonomiak erritmoa moteldu zuen 2014ko lehen hiruhilekoan eta azken urtebete eta erdiko emaitzarik txikiena jaso zuen. Hain zuzen ere, Txina %7,4 hazi zen. Tasa hori garrantzitsua da oraindik, baina 2013ko laugarren laurdenean eskuratu zuena baino hiru hamarren txikiagoa da. Esportazioak jaitsi ziren otsailean eta martxoan, eta horrek kanpo arloaren ekarpena murriztu zuen. Halaber, barne kontsumoa gutxiago hazi zen, industria ekoizpenak, hirietako kapital finkoan eginiko inbertsioak eta txikizkako salmentek bizitasuna galdu zutelako. Daturik baikorrena prezioen bilakaerak eskaini zuen. Izan ere apirilean %1,8an kokatu ziren, martxoan jasotako balioa baino bost hamarren beherago eta bertako gobernuak ezarri duen helburutik (%3,5) askoz beherago.

AEBetan, eguraldi txarrak BPGaren hazkundera moteldu zuen denboraldi batez eta %2,0 hazi zen, aurreko hiruhilekoan baino sei hamarren gutxiago. Barne eskariaren sendotasunak bakarrik bultzatu zuen bertako jarduera. Hain zuzen ere, kontsumo pribatuaren bizitasunak, urtebete batez %2,0aren inguruko tasetan asko mugitu gabe egon ondoren, bigarrenez jarraian areagotu zuen hazkunde tasa. Harekin batera, egoitzetakoa ez den inbertsioaren sendotasunak kontsumo publikoaren uzkurdua eta egoitzetako inbertsioaren erritmo galera konpentsatu zuen. Japoniak ere barne eskariaren agregatuen bilakaera ona nabaritu zuen. Kontsumo pribatuaren eta ekipamenduan eginiko inbertsioaren hazkunde garrantzitsuak, BEZaren apirileko igoera saihesteko gastua aurreratu zelako, ekonomiaren jarduera %2,7ra igoarazi zuen, aurreikuspen baikorrenak gaindituz.

Lan merkatuak bat egin zuen aldeko joera horrekin eta, bi herrialdeetan, langabezia tasak behera egin zuen berriro. Japoniako lan merkatuaren bilakaera nabarmendu behar da, bertako langabezia tasak %3,6an jarraitu zuelako apirilean ere, AEBetan hilabete berean jaso zen %6,3tik askoz beherago. Dena dela, bi herrialdeetako langabezia tasak ekonomia aurreratu gehienek baino askoz txikiagoak dira. Prezioei dagokienez, BEZaren apirileko igoerak Japoniako KPI indizea %3,4ra igoarazi zuen. Hori dela eta, hamaika hilekoz jarraian igo da inflazioa herrialde horretan eta 1991tik inoiz jaso den tasarik gorena da. AEBetan, prezioak %2,0 hazi ziren, martxoan baino bost hamarren gehiago. Emaiza hori bat dator Erreserba Federalak ezarri duen gehienezko helburuarekin.

Europar Batasunak, berriz, pauso sendoz egin zuen aurrera eta 2013ko bigarren hiruhilekoan hasi zuen ekonomia jarduera areagotzeko joerari jarraipena eman zion. Barne eskariaren osagai guztiek hamarrenak ekarri zizkioten BPGaren hazkunderari, guztien buru inbertsioaren gorakada eta kontsumo pribatuaren egonkortasuna zeudelarik. Kanpo saldoak ere hamarren bat gehitu zion hazkunderari, esportazioen bilakaera onean oinarrituta. Horiek horrela, Kontinente Zaharra %1,4 hazi zen, aurreko hiruhilekoan baino lau hamarren gehiago eta duela bi hiruhilekoz jaso zuen lehen emaitza positiboa baino 1,2 puntu gehiago. Erresuma Batuak eta Alemaniak gidatu zuten gorakada hori, kontsumo pribatuaren bilakaera onari esker. Alemaniako kasuan,

inbertsioak ere lagundu zuen, %6,6 areagotu zelako. Tasa hori azken hiru urteko emaitzarik onena da. Frantziak ere ekarpena egin zion eremuko hazkunderari, %0,8 apal batekin, 2013ko amaieran jaso zuen datu bera delarik. Kontsumo pribatuaren geldotasunak, oraindik ez baita bizkortu, eta azken urtebete eta erdian hazkunde tasa negatibotan murgilduta dagoen inbertsioak azaltzen dute egoera hori. Hala ere, jardueraren gorakada Europar Batasuneko herrialde gehienetara hedatu zen, baita periferiako ekonomietara ere, hobetzeko joera batean kokatu zirelako.

Lan merkatuari dagokionez, Europar Batasuneko langabezia tasa %10,4an kokatu zen apirilean, azken hogeita bi hilabeteko txikiena baita. Tasa horrek esan nahi du 25,4 milioi lagun baino gehiago zeudela lanik gabe. Langabeen kopurua oraindik oso altua den arren, 2013ko apiriletik jaso zen langabe kopuru altuenetik 1,1 milioi pertsona gutxiago dago orain. Prezioek, berriz, zertxobait igo ziren apirilean, baina maiatzeko lehen kalkulua iradokitzen du Euroguneko inflazioak (%0,5) berriro egin duela behera. Inflazio tasa baxuek, moneta merkatuaren tasen igoerak eta euroaren kotizazioak, 1,40 dolarretara hurbildu baita poliki-poliki, mugimendu berriak egitera presionatu dute Europako Banku Zentrala.

Bi urte baino gehiago tasa negatibotan murgilduta egon ondoren, Espainiako ekonomiak hazkunde tasa positiboak berreskuratzea lortu zuen 2014ko lehen hiruhilekoan. Hain zuzen ere, barne eskariak nabarmen handitu zuen hazkunde agregatuari eginiko ekarpena, kontsumo pribatuaren bilakaera onak bultzatuta, aurreko hiruhilekokoaren aldean are gehiago hazi zelako. Kontsumo publikoa eta inbertsioa jaitsi ziren berriro, baina hobekuntza garrantzitsua erakutsi zuten aurreko hiruhilekoetan jaso zituzten beherakadekin alderatuta. Ezustea kanpo arloak eman zuen, ordura arte hazkunderaren bultzagile nagusia baitzen eta lehen hiruhilekoan eginkizun hori barne eskariari utzi ziolako. Hain zuzen ere, ekonomiaren gehikuntzari bi hamarren kentzera iritsi zen kanpo arloa.

Eskaintzaren ikuspegitik, eraikuntzak eta lanbide jarduerak izan ezik, gainontzeko adar guztiek portaera hobetu zuten 2013ko azken hiruhilekoaren aldean. Industria eta zerbitzuak nabarmendu ziren, ez hazkunde tasen tamainarengatik, bigarren hiruhilekoz jarraian gehikuntza positiboa lortu dutelako baizik. Horrek pentsarazten du susperraldia finkatzen ari dela. Hala ere, hazkundeak ahulak izan ziren, lehen arloarena izan ezik (%6,8), eta eraikuntza arloko egoera kezkarria da oraindik.

Lan merkatuak susperraldi garrantzitsua erakutsi zuen arren, beraren egoera txarra da espainiar ekonomiaren arazo nagusia oraindik. Hain zuzen ere, lehen arloak eta zerbitzuek enplegua sortu zuten, baina eraikuntzak oraindik landunen kopurua %9,1 murriztu zuen. Horren ondorioz, enpleguaren urte arteko aldakuntza tasa %-0,3an kokatu zen. Tasa hori 2013ko

amaierakoa baino 1,3 puntu gorago dago, eta urtebete batean lanaldi osoko 55.000 lanpostu galdu direla adierazten du. Beste aldetik, inflazioa %0,2an kokatu zen maiatzean, hots, apirilean zegoena baino bi hamarren beherago. Jaitsiera hori, batez ere, elikagaien eta alkoholik gabeko edarien merkatzearen ondorioa da, 2013an produktu horiek garestitu ziren bitartean.

ESPAINIAKO EKONOMIA. TAULA MAKROEKONOMIKOA

Urte arteko aldakuntza tasa

	2012	2013	2013				2014
			I	II	III	IV	I
Azken kontsumoko gastua	-3,3	-2,1	-3,7	-3,1	-1,2	-0,3	1,1
- Familien gastua	-2,8	-2,1	-4,2	-3,0	-1,8	0,7	1,6
- Administrazioaren gastua	-4,8	-2,3	-2,3	-3,4	0,2	-3,5	-0,2
Kapital finkoaren eraketa gordina	-7,0	-5,1	-7,2	-5,8	-5,3	-1,7	-1,1
- Aktibo finko materialak	-7,8	-5,5	-7,9	-6,1	-5,6	-2,5	-1,7
- Eraikuntzan	-9,7	-9,6	-9,8	-10,1	-9,8	-8,6	-8,7
- Ekipamendurako ondasunetan	-3,9	2,2	-4,1	1,7	2,2	9,5	11,1
- Aktibo finko immaterialak	2,9	-0,2	-0,3	-3,3	-2,9	6,0	4,1
Nazio eskaria (*)	-4,1	-2,7	-4,3	-3,6	-2,1	-0,6	0,7
Esportazioak	2,1	4,9	2,9	9,5	3,5	3,7	8,1
Inportazioak	-5,7	0,4	-4,9	3,2	0,6	2,7	9,3
BPG (m.p.)	-1,6	-1,2	-1,9	-1,6	-1,1	-0,2	0,5
Nekazaritza eta arrantza	-10,9	1,1	-4,1	3,9	0,9	4,1	6,8
Industria	-0,5	-1,2	-2,5	-2,1	-0,8	0,3	0,7
Eraikuntza	-8,6	-7,7	-7,0	-8,3	-7,8	-7,7	-8,4
Zerbitzuak	-0,3	-0,5	-1,1	-0,9	-0,6	0,5	0,8
Produktuen gaineko zerga garbiak	-4,9	-1,2	-2,0	-1,0	-0,8	-1,2	3,3
GOGORATZEKOAK							
- Kontsumoko prezioen indizea	2,4	1,4	2,6	1,7	1,2	0,1	0,0
- Enplegua (**)	-4,8	-3,4	-4,7	-4,0	-3,3	-1,6	-0,3

(*) BPGaren hazkundeari eginiko ekarpena. (**) Lanaldi osoko lanpostu baliokideak.
Iturria: Espainiako Estadistika Erakundea (INE).

Azkenik, Ogasuna eta Herri Administrazio Ministerioak argitaratu dituen datuek erakusten dute Estatuak 14.169 milioi euroko defizita jaso zuela apirileko amaiera arte, kontabilitate nazionaleko terminoetan, hots, 2013ko epealdi berean baino %18 gutxiago. Halaber, Administrazio Zentralaren, autonomia erkidegoen eta Gizarte Segurantzaren defiziten batuketa ere murriztu da 2014ko lehen hiruhilekoan, BPGaren %0.67an kokatu baita, iazko ekitaldian zegoena baino %15,3 gutxiago.

EAE-KO EKONOMIA

Ekoizpena eta enplegua

2014ko hasieran, EAEko ekonomiak %0,4 handitu zuen BPG erreala. Tasa horrek, bere txikian, dagoeneko bederatzi hiruhileko iraun zuen etengabeko jaitzierako epealdi bati amaiera eman zion. Aurreko hiruhilekoarekiko hobekuntza zazpi hamarrenekoa da, eta 1,5 puntukoa, berriz, azken seiuhilekoan. Horrek esan nahi du susperraldia erritmo nabarmenean gauzatzen ari dela eta inguruneko ekonomien antzekoa dela. Hala ere, bai Espainiak (%0,5) bai Europar Batasunak (%1,4), azken honek bereziki, EAEko ekonomiarena baino aldakuntza tasa handiagoak lortu zituzten. Hiruhileko arteko aldakuntzan, EAEko BPGa %0,3 hazi zen, aurreko hiruhilekoan bezala. Tasa hori eta gorago aipatu den urte artekoa bat datoz aurreko txostenean aurreikusi zirenekin.

ESKAINTZAREN ALDAGAIK

Urte arteko aldakuntza tasak

	2012	2013	2013				2014
			I	II	III	IV	I
BPG erreala	-1,6	-1,2	-1,9	-1,5	-1,1	-0,3	0,4
Nekazaritza eta arrantza	8,7	-6,1	-5,0	-1,6	-1,8	-12,9	-1,3
Industria eta energia	-3,7	-1,9	-3,0	-2,7	-1,9	0,0	0,5
- Manufakturen industria	-3,7	-1,9	-3,2	-2,5	-1,9	0,1	0,6
Eraikuntza	-8,2	-5,0	-6,8	-6,6	-5,2	-1,2	-1,4
Zerbitzuak	-0,4	-0,6	-1,0	-0,7	-0,4	-0,1	0,6
- Merkataritza, ostalaritza eta garraioa	-1,1	-1,4	-2,0	-1,6	-1,4	-0,6	-0,2
- AA. PP., hezkuntza eta osasuna	0,4	-0,3	-1,7	-0,4	-0,1	0,9	1,9
- Gainontzeko zerbitzuak	-0,3	-0,2	-0,2	-0,1	0,0	-0,4	0,4
Balio erantsi gordina	-1,7	-1,2	-1,9	-1,6	-1,1	-0,3	0,4
Ekoizkinen gaineko zerga garbiak	-1,1	-0,7	-0,9	-0,5	-0,6	-0,6	0,4

Iturria: Eustat.

Gaur eguneko ezaugarriak azpimarragarrietako bat EAEko ekonomiaren bi motor nagusiek, hots, industriak eta zerbitzuek, lortu duten bizitasuna da. Bi sektoreek hazkunde erritmo positiboak lortu zituzten eta atzean utzi zituzten aurreko hiruhilekoetako beherakadak. Industriari dagokionez, balio erantsiaren gehikuntza %0,5 izan zen; hamarren bat gehiago

manufakturen atalean. IPIaren analisiak iradokitzen du portaera onena erakusten ari diren ekoizkin taldeak ekipamendurako ondasunekin (%1,1) eta bitartekoekin (%2,7) lotura dutenak direla. Aitzitik, energiak eta kontsumorako ondasunek ekoizpena gutxitu zuten aurtengo hasieran. Oso garrantzitsua da oraindik kontsumo iraunkorreko ondasunen jaitsiera (%-19,6), Fagor enpresaren itxierak talde horretan eragin handia duelako.

Industriaren balio erantsiaren gehikuntzarekin batera sektoreko eragileen igurikimenean hobekuntza etorri zen, Industria Ministerioak osatzen duen industria giroaren indizearen bilakaerak erakusten duenez. Zehazkiago, indize horrek bost puntu hobetu zituen laugarren hiruhilekoko datua. Are gehiago, apirilean eta maiatzean ere hobera egin zuen eta, hurrenez hurren, -12,7 eta -13,5 jaso zituen. Eskari zorroa apala da oraindik, baina hobetzen ari da; saldu gabeko stockak ez dira pilatzen eta ekoizpenaren joeraz gero eta baikorragoak dira. Halaber, ekoizpen ahalmenaren erabilera altu samarra da. Beraz, ekoizpen materialean inbertitzeko beharra gero eta handiagoa izango da.

JARDUERA ADIERAZLEAK

Urte arteko aldakuntza tasak

	2012	2013	2013			2014	
			III	IV	I	Apirila	Maiatza
Industria							
Industria produkzioaren indizea	-5,9	-3,2	-3,5	-1,7	-0,3	2,6	---
Industria giroaren indizea	-23,0	-21,2	-14,6	-22,5	-17,5	-12,7	-13,5
Ekoizteko ahalmen. erabilera (%)	74,2	71,7	77,2	71,3	75,2	76,6	---
Gizarte Segurantzako afiliazioa	-4,5	-4,5	-4,1	-3,2	-2,4	-2,4	-2,6
Eraikuntza							
Koiunturako indizea	-20,1	-16,4	-18,5	-6,3	-9,9	---	---
Obrak zuzentzeko bisatuak	-40,2	-12,0	-37,6	15,1	-25,3	---	---
Etxebizitzaren salerosketak	-20,2	-18,3	-15,0	-19,4	-26,0	48,8	---
Gizarte Segurantzako afiliazioa	-12,0	-12,0	-11,6	-8,9	-6,1	-4,3	-3,5
Zerbitzuak							
Hegazkinen bidezko trafikoa	3,1	-9,1	-11,3	-4,3	-2,0	9,5	---
Hoteletan igarotako gaualdiak	2,8	-1,8	-0,9	-3,1	-10,2	12,3	---
Hoteletako okupazioa	46,1	44,3	60,3	37,8	29,7	42,6	---
Negozio zifren indizea	-7,1	-3,6	-2,0	-1,1	4,5	---	---
Zerbitzuen koiuntura indizea	-6,3	-5,0	-6,4	-1,1	-0,9	---	---
Gizarte Segurantzako afiliazioa	-0,8	-2,0	-2,4	-1,0	0,4	1,0	1,2

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina, Industria, Energia eta Turismo Ministerio, Eustat, INE, Sustapen Ministerio, Gizarte Segurantza eta Hegazkineria Zibilerako Zuzendaritza Nagusiaren datuetan oinarrituta.

Eraikuntzaren balio erantsiak bertan behera utzi zuen aurreko hiruhilekoetan erakutsi zuen susperraldia eta %-1,4ko urte arteko emaitza jaso zuen, aurreko datua baino bi hamarren okerragoa. Ekoizpenaren terminoetan, Eustatek egiten duen koiunturako estatistikaren arabera, urte arteko beherakada oso garrantzitsua izan zen (%-9,9), 2013ko amaierakoa baino are biziagoa. Hala eraikinen lanek nola obra zibilak ekoizpena murriztu zuten 2014ko hasieran, lehen kasuan %10,4 eta bigarreanean %9,1.

Zerbitzuek susperraldia biziagotu zuten aurtengo hasieran eta %0,6 handitu zuten balio erantsia urte arteko tasan. Horrek esan nahi du zazpi hamarrenetan hobetu zutela emaitza. Kontuan hartuta normalean portaera egonkorra erakusten duela, oso zenbateko garrantzitsua da. Zerbitzuak osatzen dituzten atal guztiek datuak hobetu zituzten, baina oraindik zailtasunak daude merkataritza, ostalaritza eta garraioa biltzen dituen multzoan, balio erantsia zertxobait gutxitu zuelako (%-0,2). Oso bestelakoa da administrazio publikoa, hezkuntza, osasuna eta gizarte zerbitzuak batzen dituen atalarena, erritmoa %1,9 biziagotu zuelako, hau da, aurreko balioa baino puntu oso bat gehiago. Gainontzeko zerbitzuen tasa ere positiboa izan zen (%0,4).

Aste Santua hilabete ezberdinetan ospatu izanak koiunturako informazioa alboratuta egotea eragin badezake ere, INEk argitaratzen duen zerbitzuen negozio zifrak sektorearen susperraldi garrantzitsu bat adierazi zuen dagoeneko aurtengo lehen hiru hilekoetan. Izan ere, urte arteko tasa 2013ko amaierako %-1,1etik 2014ko hasierako %4,5 bikainera igaro da. Eustaten adierazleak ere azken hiruhilekoetako emaitzarik onena jaso zuen aurtengo hasieran (%-0,9), nahiz eta kasu horretan oraindik datua negatiboa den arren. Oro har, merkataritzak bilakaera negatiboa erakusten jarraitu du, salbuespena automobilen salmenta delarik, Espainiako gobernuak erosketak bultzatzeko ematen duen diru laguntzari esker. Gainontzeko zerbitzuetan, garraioaren gorakada eta lanbide jardueren eta ostalaritzaren ahultasuna konpentsatuta geratu dira.


EAEko BPGak 2014ko lehen hiruhilekoan lortu zuen gehikuntzak lanpostuen galera berriro gutxitzeko balio izan zuen. Hain zuzen ere, Eustaten kontu ekonomikoetan kalkulatzaren diren lanpostuen kopuruak adierazten du %0,5 galdu direla urte arteko tasan, hots, aurreko hiruhilekoan jaso zen tasaren erdia eta azken hiru urteko erritmorik txikiena. Aldakuntza tasa horrek esan nahi du 4.500 lanpostu galdu direla azken urtebetean.

Sektoreka, enpleguak zerbitzuetan izan duen bilakaera ona azpimarratu behar da, hazkunde erritmoa leunki bizkortu zuelako %0,4ra arte, urte arteko tasan. Beraz, 2.500 lanpostu garbi sortu dira arlo horretan. Kontuan hartuta zerbitzuek EAEko enpleguaren %70 biltzen dutela, oso garrantzitsua da susperraldirako sektore horrek tasa negatiboak atzean utzi eta enplegu garbia sortzen hasi izana. Hala eta guztiz ere, aipatu den kopuru hori ez zen nahiko izan gainontzeko


sektoreek galdutakoa konpentsatzeko. Zehatz-mehatz, industriak %2,0 murriztu zuen bere enplegua, hots, 3.760 lanpostu gutxiago zeuzkan aurreko urtean baino. Orobat, eraikuntzak %4,9 murriztu zuen berea, gutxi gorabehera 3.000 lanpostu galduta. Irakurketa positiboa da bi kasuetan aldakuntza tasa negatiboak bizkor moteltzen ari direla eta enplegu sorrera bi sektore horietan berehala lortuko ez den arren, badaude hainbat arrazoi pentsatzeko enplegu galera datozen hiruhilekoetan galgatu dela.

Enpleguaren bilakaera Urte arteko aldakuntza tasak

Kontu ekonomikoak



Afiliazioa



Iturria: Eustat eta Gizarte Segurantzza

Gizarte Segurantzako afiliazioaren azken datuek seinatzen dute afiliatuen kopuruak gora egin zuela maiatzean, 2008ko urritik lortu den lehen hazkundea delarik. Hala ere, gehikuntza tasa oso txikia izan zen (%0,2) eta 2013ko maiatzaren aldean bakarrik 1.300 afiliatu gehiago daudela adierazten du. Estatistika horrek ere portaera ezberdina erakusten du industrian eta eraikuntzan, biek afiliatuak galtzen jarraitzen baitute, eta zerbitzuetan, non hazkundea gero eta garrantzitsuagoa baita (maiatzeko urte artekoa %1,2 izan zen). Azpimarratu behar dira berriro arlo publikoari eta pribatuari lotutako hainbat adarren portaera, hala nola hezkuntzarena (%3,8) eta osasunarena (%2,7), baina baita merkatuko jarduerak diren beste batzuk ere, esate baterako ostalaritza (%2,5), jarduera artistikoak (%4,0) eta jarduera administratiboak (%3,1). Beste muturrean, administrazio publikoan eta finantza zerbitzuetan afiliazioa gutxitu zen (hurrenez hurren, %-1,5 eta %4,1).

BPGaren eta enpleguaren konbinaketak %1,0ko hazkundera ekartzen dio lan faktorearen itxurazko produktibitateari lehen hiruhilekoan. Tasa hori bat dator 2013an, oro har, lortu zen emaitzarekin. Are gehiago, 1995etik lortu den batez bestearen (%1,1) antzekoa da. Ohikoa denez, industriak oso gehikuntza nabarmena lortu zuen (%2,6), lehenago aipatu den lanpostuen galeraren ondorioz. Aitzitik, zerbitzuen irabazia %0,2 baino ez zen izan, oso emaitza apala baita batez besteko historikoarekin (%0,6) alderatuta ere. Azkenik, eraikuntzak berriro lortu zuen gehikuntza esanguratsu bat produktibitatean (%3,6), beraren datu historikoa %0,4 bakarrik izaten denean.

Barne eta kanpo eskaria

2014ko hasieran gauzatu den ezaugarririk azpimarragarrienetako bat barne eskariak berriro urte arteko hazkunde tasa bat lortu izana da. Izan ere. Hiru urtez jarraian etengabeko beherakadak pilatu ondoren, aurtengo lehen hiruhilekoan barne eskariak gehikuntza positibo bat eskuratu zuen, nahiz eta oso txikia izan (%0,1). Horri esker, sei hamarrenetan hobetu zuen aurreko emaitza eta puntu bat eta erdi baino gehiago 2013ko hirugarren hiruhilekokoan, hobekuntza garbi batean. Askoz ere handiagoa izan zen kanpo arloak ekonomiaren hazkunderari eginiko ekarpena, lau hamarrenen ingurukoa izan baitzen. Datu hori 2013ko amaierakoa baino handiagoa da, baina bat dator iazko batez besteko ekarpenarekin.

ESKARIAREN ALDAGAIK

Urte arteko aldakuntza tasak

	2012	2013	2013				2012
			I	II	III	IV	I
BPG erreala	-1,6	-1,2	-1,9	-1,5	-1,1	-0,3	0,4
Barneko azken kontsumoa	-1,2	-1,0	-1,2	-1,1	-1,3	-0,6	0,3
- Familien gastua kontsumoan	-1,3	-1,0	-1,7	-0,9	-1,3	-0,1	0,2
- Adminis. gastua kontsumoan	-0,8	-1,3	0,5	-2,1	-1,1	-2,3	1,0
Kapital eraketa gordina	-6,3	-3,2	-4,7	-4,0	-3,8	-0,3	-1,1
- Ekipamendu ondasunak	-5,5	-1,2	-2,8	-1,1	-0,8	0,1	0,4
- Gainontzeko inbertsioa	-6,6	-4,1	-5,5	-5,3	-5,1	-0,5	-1,7
Barne eskaria	-2,4	-1,5	-2,0	-1,8	-1,8	-0,5	0,1
Esportazioak	-3,3	1,1	-6,7	2,9	5,5	3,1	3,4
Inportazioak	-4,2	0,5	-6,6	2,3	4,0	2,7	2,6

Iturria: Eustat.

Barne eskariaren bi osagaietatik, bizitasun handiena azken kontsumoko gastuak erakutsi zuen, aurreko urtearen aldean %0,3 hazi zelako, 2013ko laugarren hiruhilabeteko emaitza bederlatzi hamarrenetan hobetuz. Gehikuntza horren zati handi bat familien kontsumoari dagokio, balio positiboak berreskuratu zituelako eta %0,2 hazi zelako. Familiek, testuinguru ekonomiko lasaiago batean, konfiantza berreskuratu izana, enplegu galera leunagoa izatea, oso inflazio apala edukitzea eta finantza alorreko aberastasuna zertxobait igo izana dira kontsumo pribatuaren gorakada txiki hori azaltzen duten arrazoietakoz. Hala eta guztiz ere, langabezia tasa oraindik oso altua da eta higiezinaren aberastasuna jaisten ari da oraindik. Beraz, epe laburrean aldagai hori berriro suspertzea ez da aurreikusten.

Administrazio publikoen kontsumoak gehikuntza nabarmena izan zuen 2014ko lehen hiruhilekoan, %1,0. Hala ere, datu on horren atzean une jakin bateko erabakiak egon daitezke, aurtengo beste hiruhilekoetan agian jarraipenik izango ez dutenak. Horixe gertatu zen 2013an zehar ere, zeren eta lehen datu positiboaren ondoren, gainontzeko hiruhilekoetan guztiak negatiboak izan baitziren. Administrazioaren ordainketen egutegiak hiruhilabeteko datuak baldintzatu ditzake.

Txanponaren ifrentzua kapital eraketa gordinari egokitu zitzaion, urte hasieran %-1,1eko balioa jaso zuelako, aurreko emaitzaren aldean okertze bat erakutsiz. Beraz, ordura arte erakutsi zuen suspertzeko ibilbidea etenda geratu zen. Agregatu horren barnean, portaera kontrajarria hautematen da bi osagaien artean. Alde batetik, ekipamenduan eginiko ondasunen inbertsioak zertxobait areagotu zuen erritmoa eta %0,4 hazi zen urte arteko tasan. Datu apala da, baina susperraldiaren lehen zantzuak iradokitzen ditu. Hala ere, gainontzeko inbertsioak %1,7ko jaitsiera ezagutu zuen, oraindik suspertzen ez den eraikuntzaren jarduerak baldintzatuta.

Ekipamendurako ondasunen bultzada iragarrita zegoen eremu hori aztertzen duten koiunturako estatistika batzuen bilakaera onean, esate baterako ondasun horien ekoizpenean eta inportazioan. Izan ere, ekipamendurako ondasunen ekoizpenak gora egin zuen otsailean eta martxoan, eta goranzko joera garbia erakusten du, EAEko industriak, oro har, eskaintzen duena baino are intentsuagoa. Beste aldetik, ekipamendurako ondasunen inportazioa oso nabarmen bizkortu zen 2014ko hasieran, urte arteko tasa %7,7an kokatu arte, azken hiru urte luzean jaso den tasarik gorena baita. Halaber, zamaketarako ibilgailuen matrikulazioa sendo ari da hazten, espainiar gobernuak ematen dituen diru laguntzek bultzatuta.

2013ko laugarren hiruhilekoan egin zuen ekarpen apalaren ondoren, 2014ko hasieran kanpo saldoak areagotu zuen BPGaren hazkundera egiten dion ekarpena, lau hamarrenetara hurbildu arte, 2013 osoan egin zuenaren antzekoa baita. Hala esportazioak (%3,4) nola inportazioak (%2,6) aurreko hiruhilekoaren antzeko erritmoan hazi ziren, baina kanpoan saldutakoaren

hazkundera zertxobait bizkortu zen bitartean erosketak hamarren bat moteldu ziren. Batzuen zein besteen salneurriak nazioarteko merkatuetan ia ez ziren ezer aldatu eta, horren ondorioz, aldakuntza tasa nominalak eta errealak oso antzekoak izan ziren.

Analisia atzerriarekin egin ziren ondasunen salerosketara mugatzen bada eta Eustatek Aduana Sailaren datuekin argitaratzen duen informazioa erabiliz, aurtengo lehen hiruhilekoan esportazioek lortu zuten gorakada askoz ere handiagoa izan zen eta %12,4ra iritsi. Hala eta guztiz ere, gogoratu behar da datu horiek gordinak direla eta Aste Santua 2013an eta 2014an hilabete ezberdinetan ospatu izanak baldintzatzen dituela. Beraz, martxoko datuek goranzko alborapena daukate, apirileko emaitzetan konpentsatuko dena. Halaber, gorakada horren zati handi bat energia alorreko enpresen esportazioaren ondorioa da, atzerrian saldutakoa bikoiztu zutelako (%107,8), aurreko hiruhilabeteko beherakada biziaren ondoren. Energia ekoizkineen salmenta esportazio guztien %13 inguru bakarrik diren arren, izaten dituzten gorakada eta beherakada handiek eragin zuzena daukate agregatuaren azken emaitzan. Produktu horiek albo batean utzita, energiaren bestelako esportazioak %4,8 areagotu ziren aurtengo lehen hiruhilekoan, aurreko hiruhilekoan %0,4 hazi ziren bitartean.

Ekoizkin talde guztiek areagotu zituzten esportazioak aurreko urteko datuekin alderatuta. Esportazioen egituraren barruan duen pisu garrantzitsuarengatik, azpimarratzekoa da ekipamendurako ondasunen bilakaera ona, salmentak %8,6 handitu zituztelako. Atal horren barruan, oso esanguratsua izan zen garraio materialaren gehikuntza tasa (%14,8), makinak eta tresnak biltzen dituen taldea %1,7 bakarrik hazi zen bitartean. Emaitza onak lortu zituzten beste talde batzuk paperaren salmenta (%8,5) eta produktu kimikoak (%6,0) izan ziren, baina bi talde horien pisua esportazioen egituran nahiko txikia da. Plastikoa eta kautxuak urte arteko gehikuntza tasa apala jaso zuen, %0,3, baina aurreko bi hiruhilekoetan izan zituen beherakada handiak atzean uzteko balio zuen. Bestelako manufacturek (%2,4), nekazaritzako ekoizkinek (%1,6) eta metal arruntek (%1,2) ere esportazioak zertxobait handitzea lortu zuten, tasa txikietan, baina positiboak.

Esportazioen gehikuntza tasa antzekoa izan zen herrialde garatuetan eta garapen bidean dauden ekonomietan. Zehatz-mehatz, ELGEko taldeak %10,9 handitu zituen EAEko produktuen erosketak, aurreko bi hiruhilekoetan jaso ziren emaitza ahulak nabarmen gaituz. Erakunde horretakoak ez diren herrialdeek, berriz, %17,6 areagotu zituzten beren inportazioak, aurreko urteetako erritmoen oso gaineratik. Lehenago aipatu denez, energiaren atalak paper garrantzitsua jokatu zuen lehen hiruhilekoko emaitzetan, bereziki garapen bidean dauden herrialdeei dagokienez. Izan ere, ELGEra bidalitako energiaren bestelako esportazioek oraindik bultzada esanguratsua (%6,0) izan bazuten ere, garapen bidean dauden herrialdeen kasuan gehikuntza hura %4,7ko jaitsiera bihurtzen da energiakoak ez diren salmentak bakarrik hartzen baditugu kontuan.

ESPORTAZIOEN HELBURUA

Urte arteko aldakuntza tasak eta mila euro

	2012	2013	2013			2014	
			II	III	IV	I	I
GUZTIRA	-3,7	-0,3	9,3	2,7	-8,3	12,4	5.371.983
ELGE	-5,5	1,2	10,7	2,0	-2,3	10,9	4.110.778
Europar Batasuna	-9,1	-0,8	3,9	4,3	-0,8	14,0	3.396.715
Frantzia	-15,9	-1,5	14,8	0,1	-10,9	-2,6	812.160
Alemania	-5,0	1,8	0,0	8,2	4,6	12,0	779.019
Erresuma Batua	12,0	-8,7	-5,3	0,1	-9,8	15,3	316.227
Italia	-20,6	-2,5	5,7	-1,2	-5,8	-9,2	219.168
AEB	0,7	8,7	30,3	0,6	-25,4	9,4	354.035
ELGETik kanpokoak	2,9	-5,0	4,2	5,2	-24,4	17,6	1.261.205

Iturria: Eustatek egina, Zerga Administrazioiko Estatu Agentziaren datuetan oinarrituta.

Herrialde garatuen artean, gorakada garrantzitsua hauteman da EAEko produktuen helburu nagusian, hots, Europar Batasunean. Ekonomia eremu horrek %14,0 areagotu zituen bere erosketa guztiak EAEn, eta %8,3, berriz, energia ekoizkinen eragina kontuan hartzen ez bada. Banaketa herrialdeka egiten denean, agerian gelditzen da Europako ekonomiek bizi duten suspertzeko erritmo ezberdinak. Izan ere, 2014ko hasieran bizitasun handiena erakutsi zutenak dira, hain zuzen ere, EAEn eginiko erosketak gehien handitu zituztenak. Esate baterako, Alemaniara esportatutakoa %12,0 hazi zen eta Erresuma Batura bidalitakoa, berriz, %15,3. Beste muturrean, Frantzia eta Italian saldutakoaren jaitsierak ondo islatzen du bi herrialde horiek aurtengo lehen hiruhilekoan erakutsi duten ahultasuna. Beste aldetik, AEBetara esportatutakoa oso nabarmen areagotu zen, bai salmenta guztiak (%9,4) bai energiaren bestelakoak (%9,5).

Aipatua izan denez, energia alorreko ekoizkinen salmentak garapen bidean dauden herrialdeetara esportatutakoaren emaitza baldintzatu zuen. Hala ere, eremu horretako bi merkatu garrantzitsuenetako bilakaera ona azpimarratzea merezi du. Hala Txinak nola Brasilek tamaina handiko gehikuntzak izan zituzten beren erosketetan, bai guztira bai energiari gabeko atalean. Zehazkiago adierazita, esportazio guztiak %23,4 hazi ziren Txinan eta %34,3, berriz, Brasilen, eta energiaren bestelako esportazioak %23,5 eta %7,8, hurrenez hurren. EAEko enpresentzat garrantzia duten hurrengo herrialdeak Singapur eta Aljeria dira, bietan EAEko produktuen erosketa oso nabarmen areagotu baita (%260,9 eta %123,1, hurrenez hurren). Lehen kasuan, esportatu zen ia guztia produktu mineralak izan ziren. Bigarrenean, ordea,

metalak eta beren manufakturak izan ziren salmenta guztien zati handiena bereganatu zuen atala.

Esportazioetan gertatu zen bezala, inportazioek ere gorakada garrantzitsua ezagutu zuten 2014ko lehen hiruhilekoan, kasu horretan %10,8. Energiako produktuen erosketak kontuan hartu gabe, inportazioen gehikuntza garrantzitsua izan zen oraindik (%7,5). Hazkunde horren banaketa eremuka deigarria da, zeren eta erosketak herrialde garatueta bakarrik areagotu zirelako (%31,9), garatzen ari diren herrialdeetan berriro gutxitu ziren bitartean (%-17,8). Kontuan hartu behar da azken herrialde horietatik inportatzen denaren ia bi herenak produktu mineralak direla (petrolio eta gas naturala talde horretan daude sartuta) eta ekoizkin horien erosketak Errusiatik (%-34,1) Baltikoko herrialdeetara, Norvegiara eta AEBetara desbideratzen ari dela. Energiako produktuak albo batera utzita, azaleratzen ari diren herrialdeetan eginiko erosketak %0,8 handitu ziren. Txinak paper garrantzitsua jokatu zuen bilakaera horretan, EAEn %11,5 gehiago saldu zuelako.

INPORTAZIOEN JATORRIA

Urte arteko aldakuntza tasak eta mila euro

	2012	2013	2013			2014	
			II	III	IV	I	I
GUZTIRA	-9,4	1,8	2,7	-4,9	6,5	10,8	4.316.493
ELGE	2,6	1,0	-5,8	-2,8	23,0	31,9	2.959.394
Europar Batasuna	-6,8	-0,8	-4,5	-10,9	18,7	38,4	2.331.388
Frantzia	-9,4	0,9	1,1	1,9	9,0	4,6	400.099
Alemania	-2,1	-2,3	3,9	-13,0	5,3	8,3	501.820
Erresuma Batua	-28,8	-2,6	15,9	-30,6	14,1	3,6	123.797
Italia	-0,8	-11,6	-12,4	-9,8	-12,3	0,5	184.013
AEB	-13,0	40,6	-12,6	62,7	318,7	96,1	157.871
ELGETik kanpokoak	-24,9	3,3	21,6	-8,2	-19,0	-17,8	1.357.099

Iturria: Eustatek egina, Zerga Administrazioiko Estatu Agentziaren datuetan oinarrituta.

Europar Batasunetik ekarritako inportazioak %38,4 areagotu ziren. Hala ere, zenbaki horren atzean, neurri handi batean, energiako inportazioaren jatorria aldatu izana dago, zeren eta produktu horiek kontuan hartu gabe, eremuan eginiko erosketak askoz gutxiago hazi baitziren (%7,5). Energia alorreko ekoizkinak kontuan hartu gabe, azpimarratu behar dira Alemaniako (%8,3) eta Frantziako (%4,6) produktuen erosketak. Europatik kanpo, adierazgarriak dira Japonian (%10,2) eginiko erosketen bilakaera, nahiz eta EAEk herrialde horrekin dituen

merkataritza harremanak oso estuak ez diren, inportazio guztietatik %1 baino gutxiago herrialde horretatik ekartzen baita.

Esportatutako eta inportatutako diru kopuruen arteko aldeak merkataritza saldo positiboa uzten du EAerako, 1.055 milioi eurokoa. Zifra horrek EAEko BPGaren %6 baino gehiago da eta hurbil dago aurreko epealdietan lortutako emaitzetatik. Energiako produkturik gabeko saldoa, ohikoa den bezala, askoz ere handiagoa izan zen eta 2.074 milioi eurora iritsi zen. Aitzitik, energiako saldoak 1.019 milioi euro kendu zizkion saldo totalari.

Prezioak

2014ko lehen hiruhilekoan, prezioen adierazle nagusiek moteltzeko joerari jarraipena eman zioten. Beraien artean, BPGaren deflatorearen bilakaera nabarmendu behar da, 2013ko azken hiruhilekoan %1,2 izatetik aurtengo hasieran %-0,1 izatera igaro baita. Deflatorearen osagai guztiek lagundu zuten ekonomiaren prezioen jaitsiera txiki horretan, baina inbertsioaren datua nabarmendu behar da, beraren deflatoreak puntu oso bat areagotu zuelako bere jaitsiera, urte arteko aldakuntza %-1,9an utzi arte. Kontsumo pribatuaren deflatoreak, berriz, ia aldaketarik gabeko (%0,1) ibilbidea erakutsi zuen. Azkenik, kontsumo publikoaren deflatorea 2013ko laugarren hiruhilekoko %6,6tik, funtzionarioei eman zitzaien aparteko ordainketak baldintzatuta, 2014ko hasierako %2,8ra igaro zen.

Kontsumoko prezioen bilakaerari dagokionez, hauek oso balio apaletan jarraitu zuten 2014ko lehen hilekoetan. Hain zuzen ere, behin 2012ko irailean BEZ zergan ezarri zen igoerak eta garai hartan onartu ziren beste neurri fiskal batzuek izan zuten goranzko eragina desagertu ondoren, KPI indizea %0,6aren inguruan ibili ohi da, aldaketa gutxirekin. Izan ere, martxoan indizea %0,2ra jaitsi zen, baina apirilean berriro kokatu zen %0,6an, Aste Santua 2013an eta 2014an hilabete ezberdinetan ospatu izanak joan-etorriko mugimendu bat sortu zuelako kontsumoko salneurrietan.

Kontsumoko prezioak biziago haztea eragozten duten beste alderdi batzuk barne eskariaren beraren ahultasuna eta lan kostuen moteltzea dira. Halaber, Brent motako petrolioaren portaerak ere kontsumoko prezioen bilakaera motela lagundu zuen, upelaren salneurria 107 dolarretan finkatu duelako, herrialde ekoizle batzuek eskaintzen duten petrolio gordinaren kopurua normalizatu delako, nahiz eta Ukrainiako tentsioek prezioa gorantz bultzatu zuten denboraldi labur batez. Beraz, petrolio gordinaren eta bestelako lehengaien merkatuetan ustekabeko mugimenduak gertatu ezean, eta kontuan hartuta gaur eguneko eskari ahuleko eta

lan kostuen tentsiorik ezeko testuingurua, oso litekeena da inflazioak aldakuntza tasa apaletan jarraitzea.

KPIak erakutsi zuen bilakaera motel hori ez da EAEko ekonomian bakarrik gertatzen eta komuna da Europako herrialde askotan ere. Zehazkiago adierazita, Eurogunearekiko inflazio tarteak EAEn aldekoa izan zen berriro, baina apirilean hamarren bakarrekoa izan zen. Beste aldetik, diferentziala negatiboa izan zen berriro alderaketa espainiar inflazioarekin egiten bada, nahiz eta kasu horretan bi hamarrenekoa bakarrik den. Neurri batean, Espainiako KPI indizearekiko diferentzia iaz abiatu zen botiken koordainketan datza, eta aurtengo uztaila arte eragina izango du. Ordurako, EAEko KPIa zerora hurbilduko dela espero da, baina aurtengo azken hilekoetan zertxobait haziko da, %0,6aren inguruan kokatu arte.

KONTSUMOKO PREZIOEN INDIZEAREN BANAKETA

Urte arteko aldakuntza tasak eta ekarpenak

	2012	2013	2013		2014		Ekarpena
			IV	I	Apirila		
Inflazio osoa (%100)	2,3	1,6	0,5	0,4	0,6	0,6	
Azpiko inflazioa (%81,8)	1,5	1,6	0,7	0,5	0,5	0,4	
- Elikagai landuak (%14,1)	3,3	3,1	1,6	0,6	0,2	0,0	
- Industria ondasunak (%26,2)	0,3	0,5	0,3	0,4	0,2	0,1	
- Zerbitzuak (%41,5)	1,7	1,8	0,6	0,5	0,8	0,3	
Hondar inflazioa (%18,2)	6,1	1,4	-0,1	0,0	1,0	0,2	
- Landu gabe elikagaiak (%7,0)	2,7	3,7	1,5	1,2	-0,6	0,0	
- Energia (%11,2)	8,3	0,0	-1,1	-0,8	2,0	0,2	

Iturria: INE.

Azpiko inflazioak, indize orokorrak bezala, oso hazkunde erritmo motelak aurkeztu zituen, azken hilekoetan bizi den moteltzeko joerari jarraipena emanez. Apaltzeko prozesu horretan, landutako elikagaien papera nabarmena izan da, aurreko hiruhilekoaren aldean puntu oso bat jaitsi baita beraren hazkunde tasa eta beste hamarren batzuk gehiago apirila arte (%0,2), edariek eta tabakoak gehikuntza tasak gutxitu zituztelako. Beste aldetik, energiakoak ez diren industria ondasunek zertxobait moteldu zuten hazkundea eta %0,2ko urte artekoa jaso zuten. Azkenik, zerbitzuek apur bat bizkortu zuten erritmoa %0,8ra arte, baina azken bi urtean jaso dituzten batez besteko balioen oso azpitik daude oraindik.

Gorabehera handienak izaten dituzten KPIaren osagaiak aurtengo lehen hilekoetan inflazio orokorrak ezagutu duen moteltzean parte hartu zuten, nahiz eta apirilean atal horrek %1,0ko gehikuntza izan zuen, energiako atalak bultzatuta (%2,0). Argindarraren garestitze bat baino, urte arteko hazkundearen arrazoia da 2014an ez zela berriro gertatu 2013an jaso zen prezioen jaitsiera hura.

EAE-KO KONTSUMOKO PREZIOEN INDIZEA

Urte arteko aldakuntza tasak

	2012	2013	2013			2014	
			II	III	IV	I	Apirila
Indize orokorra	2,3	1,6	1,7	1,6	0,5	0,4	0,6
Janariak eta alkoholik gabeko edariak	2,7	2,9	3,7	3,7	1,1	0,6	-0,3
Edari alkoholdunak eta tabakoa	5,8	6,0	4,7	5,8	5,3	2,1	1,7
Jantziak eta oinetakoak	0,2	0,1	0,2	-0,1	0,5	0,2	0,4
Etxebizitza	5,7	1,1	0,4	-0,6	-0,1	1,7	3,1
Etxeko hornidura	1,1	2,0	3,0	1,9	0,1	-0,4	-0,7
Medikuntza	-0,7	7,5	5,0	11,2	9,0	8,2	8,1
Garraioa	4,3	0,3	0,1	-0,1	-0,1	-0,9	0,1
Komunikazioak	-3,4	-4,3	-4,1	-4,2	-6,8	-6,8	-5,7
Aisia eta kultura	1,0	1,6	2,4	1,7	-0,2	-1,0	0,3
Irakaskuntza	2,8	3,0	3,2	3,2	2,5	2,8	2,7
Hotelak, kafetegiak eta jatetxeak	1,0	1,1	1,2	1,4	0,7	0,6	0,7
Besteak	2,4	2,1	2,9	2,1	0,5	0,7	0,9

Iturria: INE.

Analisia taldeka egiten denean, medikuntzarena (%8,1) da berriro gainontzekoetatik gehien desbideratzen dena azken hilabeteetan, lehenago aipatu den botiken koordainketa abiarazi izanak eragin zuen hazkunde tasa altuaren ondorioz. Hala ere, goranzko eragin hori laster desagertuko da. Talde horrekin batera hezkuntza (%2,7) ere aipatu behar da, Europako Banku Zentralak ezarri zuen %2ko helburua gainditu duelako, unibertsitateetako tasen igoeraren ondorioz. Beste muturrean, azpimarratu behar dira, alde batetik, komunikazioen multzoaren bilakaera (%-5,7), telefoniako zerbitzuen salneurriek izan zuten jaitsiera garrantzitsuarengatik, eta, beste aldetik, elikagaien (%-0,3) eta etxeko tresneriaren (%-0,7) salneurrien merkatze arina.

Halaber, moteltzeko joera nabarmena ikusten da beste talde batzuetan ere, hala nola aisia eta kulturaren (%0,3), bidaia antolatuen igoera txikiagoa izan zelako, garraioan (%0,1), erregaien portaerak eragin baitzuen geldotasun hori, eta jantziak eta oinetakoak biltzen dituen taldean (%0,4).

Industriako prezioei dagokienez, IPRIk beheranzko joera areagotu zuen aurtengo lehen hilekoetan eta balio negatibotan jarraitu zuen (apirilean %-0,2), aurtengo hilabete guztietan gertatu den bezala. Hain zuzen ere, beraren osagai nagusiek aldakuntza tasa negatiboak jaso zituzten, baina berriro ere energiako osagaiak aurkeztu zituen baliorik txikiak (%-2,6), aurreko hiruhilekoetan bezala. Gainontzeko taldeek ere lagundu zuten moteltzeko prozesu horretan, nahiz eta neurri txikiagoan izan zen. Horiek horrela, kontsumoko ondasunek (%-1,6) iazko erdialdean hasi zuten beheranzko joera areagotu zuten. Halaber, bitarteko ondasunek moteltzeko joera zertxobait bizkortu zuten (%-1,7), industriako lehengaien salneurrien bilakaerarekin, bai metalikoena bai gainontzekoena, bat eginez. Azkenik, ekipamendurako ondasunek oso portaera motela (%-0,6) erakutsi zuten eta horiek ere prezioak jaitsi zituzten.

Lan hitzarmenetan adostutako soldatek gehikuntza ahulak izan zituzten berriro eta 2013ko moteltzea areagotu zuten. Zehazkiago, apirila arte indarrean zeuden hitzarmenen soldata %0,8 hazi zen batez beste, eta aurtengo hilekoetan sinatutakoak, berriz, %0,5. Hazkunde txikiak diren arren, erosteko ahalmena ez da jaitsi, prezioak ere oso gutxi hazi direlako. Orobat, azpimarratu behar da aurten sinatutako hitzarmenen kopurua iazkoa baino handiagoa dela (324 eta 182, hurrenez hurren, eta baita beraien eraginpean dagoen langileen kopuruarena ere (146.341 eta 55.079).

HITZARMENETAN ADOSTUTAKO SOLDATA IGOERAK

Urte arteko aldakuntza tasak

	2009	2010	2011	2012	2013
Indarrean dauden hitzarmenak:	1,9	3,6	2,7	1,3	0,8
- Urtean zehar sinatutakoak	1,7	3,4	2,0	1,1	0,5
Negoiazio esparruaren arabera:					
- Sektoreko hitzarmenak	1,7	3,8	2,7	1,3	0,9
- Enpresako hitzarmenak	2,4	3,1	2,6	1,2	0,7

(*) 2014ko apirila arte erregistratutako hitzarmenak.

Iturria: Lan Harremanen Kontseilua.

Aurreikuspenak

Consensus Forecastek aurreikusi duenez, munduko ekonomia %2,8 haziko da 2014an eta urte arteko aldakuntza tasa zertxobait indartuko da 2015ean, %3,2ra arte. NDFk, berriz, apirileko txostenean hazkunde aurreikuspenak eguneratu zituen munduko ekonomiarentzat. Orain argitaratu duenez, %3,6 eta %3,9 haziko da, hurrenez hurren, 2014an eta 2015ean. Bi iturrien arteko aldea, bereziki, erabiltzen duten neurrian datza, lehen erakundeak dolarretan ematen duelako bere kalkulua eta bigarrenak, ordea, erosteko ahalmenaren parekotasunean. Munduko ekonomiaren ingurunean, beheranzko arriskuak gutxitu dira. Gaur egun, ekonomiaren susperraldia mehatxatzen duten gertakariak lotuta daude azaleratzen ari diren herrialdeei, ekonomia aurreratuen inflazio maila apalari eta hainbat herrialdetan, hala nola Sirian, Iraken eta Ukrainian, dauden tentsio geopolitikoak. Mehatxu horiek konpentsatuta daude goranzko aukera batzuekin, hiruhileko honetan aurkeztu direnak baino eszenategi baikorragoak eratzea ahalbidetzen dutenak.

EKONOMIA AURREIKUSPENAK

Urte arteko aldakuntza tasak

	BPG			Kontsumo prezioak		
	2013	2014	2015	2013	2014	2015
Munduko ekonomia	2,5	2,8	3,2	2,7	3,1	3,1
AEB	1,9	2,2	3,1	1,5	1,8	1,9
Kanada	2,0	2,2	2,5	1,0	1,8	2,0
Japonia	1,5	1,5	1,2	0,4	2,6	1,8
Eurogunea	-0,4	1,1	1,5	1,3	0,7	1,2
Europar Batasuna	0,1	1,5	1,9	1,4	1,0	1,5
Alemania	0,4	2,0	2,0	1,5	1,2	1,8
Espainia	-1,2	1,1	1,6	1,4	0,3	0,9
Frantzia	0,4	0,8	1,3	0,9	0,8	1,1
Herbehereak	-0,8	0,6	1,4	2,5	1,0	1,3
Italia	-1,8	0,4	1,2	1,2	0,6	1,0
Erresuma Batua	1,7	3,0	2,6	2,6	1,8	2,1
Asia eta Ozeano Barea	4,6	4,6	4,6	2,6	3,1	3,0
Ekialdeko Europa	2,1	1,5	2,7	5,1	5,4	5,0
Amerika Latinoa	2,6	2,1	2,8	8,5	11,2	9,8

Iturria: Consensus Forecast (2014ko ekaina).

AEBetako ekonomiarentzat aurkeztu diren 2014ko eta 2015eko hazkunde aurreikuspenek bizitasun esanguratsua iradokitzen dute. Consensus Forecasten arabera, ekonomia estatubatuarra %2,2 haziko da 2014an eta %3,1era iritsiko da 2015ean. Kontsumitzaileen eta enpresen konfiantzak izan duen hobekuntzak egoitzetan eginiko inbertsioa bizkortuko du, kontsumo pribatua suspertuko du eta egoitzetakoa ez den inbertsio finkoa nabarmen biziagotuko du. Galga fiskal txikiagoak eta azken urteetan politika fiskalari lotuta zegoen ziurgabetasuna gutxitu izanak ere lagunduko dute hazkundera. Euroguneko ekonomiaren bilakaera eta azaleratzen ari diren merkatuen moteltzea dira kanpo arrisku nagusiak AEBentzat, bertako hazkunde aurreikuspenak jaitsarazi ditzakeenak. Barne mailan, beheranzko arriskuak finantzaziorako baldintzak eta ziurgabetasun fiskala dira. Egon badaude aurreikusitako hazkunde tasak gorarazi ditzaketan alderdi positiboak ere. Balantzaren alde horretan higiezinaren merkatuaren susperraldi biziago bat eta enpresarien konfiantza handiago bat daude, finantza arloa nahiko onbideratuta dagoelako.

Euroguneko ekonomiak ere nolabaiteko bizitasuna berreskuratuko du datozen hiruhilekoetan. Consensus Forecastek aurreikusi du Europako diru batasunaren ekonomia %1,1 haziko dela 2014an eta %1,5era iritsiko dela 2015ean. Eredu fiskalean egingo diren hobekuntzak, finantza sistemen zuzenketa, kanpo eskari handiago bat eta barne eskariaren ekarpen positiboa dira ekonomiaren bizkortze horren atzean egongo diren faktoreetako batzuk. Hala ere, portaera ezberdinak aurreikusten dira Eurogunearen barnean. Izan ere, zor publikoan tentsioak dituzten eta finantzatzeko zailtasunak dituzten herrialdeen hazkunde erritmoa motela eta ahula izango da. Ziurgabetasun handia dago ekonomia susperraldiaren sendotasunaz eta iraunkortasunaz. Kezka horren oinarrian langabezia tasa altuak, zor publikoa eta kreditua lortzeko zailtasunak daude. Euroguneko ekonomiaren gainean beheranzko arrisku asko daude, hala nola egin behar diren erreformak, inflazio apala eta nazioarteko ingurunearen hainbat faktore.

Espainiari dagokionez, erakunde gehienek %1,0aren inguruan kokatu dute 2014ko batez besteko hazkunde aurreikuspena. Datorren urterako, ordea, ezadostasun handiagoa dago espainiar ekonomiaren hazkunde ahalmenaz eta aldakuntza tasa NDFk kalkulatu duen %1,0aren eta Cepredek eta Funcasek estimatu duten %2,2aren artean mugitzen da. Datozen hiruhilekoetan, ekonomiaren susperraldia sendotuko da, barne eskaria indartuko delako eta kanpo eskariak hazkunderari egiten dion ekarpenak bere horretan jarraituko duelako. Barne eskari pribatua hazten hasiko da familien kontsumo ereduaren uzkurdura eta enpresentzako kredituaren murrizketa zuzenduko diren heinean. Barne eskari publikoari dagokionez, defizit publikoaren konpromisoei eusteko gastua kontrolatu beharko da, aurreikusitako ekonomia hazkundera ez baita nahikoa izango defizit publikoa gutxitzeko helburuak bermatzeko.

ESPAINIARAKO AURREIKUSPENAK HIRUHILEKOKA (2014ko maiatza)

Urte arteko aldakuntza tasak

	2014			2014	2015
	II	III	IV		
BPG	1,1	1,5	1,8	1,3	2,2
Kontsumo pribatua	1,2	0,9	0,7	1,1	1,3
Kontsumo publikoa	-2,0	-0,8	0,8	-1,4	1,1
Kapital finkoaren eraketa gordina	0,4	0,0	0,7	0,1	3,2
- Inbertsioa ekipamenduan	5,0	2,7	3,0	4,9	3,6
- Inbertsioa landutako aktibotan	4,0	-2,3	-2,4	0,7	-2,2
- Inbertsioa eraikuntzan	-3,0	-2,1	-1,2	-3,4	2,7
Barne eskaria	0,5	0,5	0,9	0,5	1,6
Esportazioak	4,9	5,9	6,2	5,5	6,5
Inportazioak	3,4	3,2	3,8	3,5	5,0

Iturria: CEPREDE

Kanpoko testuinguruaz aurkeztu den oinarrizko eszenategi horrekin, Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak ekonomiaren aurreikuspenak eguneratu ditu 2014rako eta 2015erako. EAEko ekonomiak susperraldia sendotzeko joera erakutsiko duela biurteko horretan aurreikusten da. Hain zuzen ere, hazkundea %1,0 izango da 2014an eta %1,7, berriz, datorren urtean. Barne eskariak bizitasuna berreskuratuko du eta BPGaren hazkundeari ekarpen handiena egingo dio.

Familiek kontsumoan eginiko gastua urratsez urrats hobetuko da kontsumitzaileen konfiantza igoko delako. Aberastasun efektu handiago batek, interes tasa apalek eta prezioen igoera txikiak familien kontsumoa areagotzen lagunduko dute. Lanpostuen sorrerak ere baldintzatuko du agregatu horren bilakaera. Kapital eraketa gordina nabarmen bizkortuko da barne merkatuaren igurikimenak eta nazioarteko ingurunearen bilakaera hobetuko direlako. Kreditua lortzeko aukerak baldintzatuko du, bereziki, agregatu horren nondik norakoa. Eraikuntzan eginiko inbertsioak eta, batez ere, ekipamendurako ondasunetan eginikoak suspertzeko joera erakutsiko dute.

Nazioarteko ingurunerako espero den bilakaerak, lehiakortasun irabaziek eta EAEk merkataritza kuota irabazi izanak datozen hiruhilekoetan esportazioak gehiago haztea ahalbidetuko dute. Beste aldetik, kanpoan eginiko erosketak igoko dira barne eskaria suspertuko den heinean.

Horiek horrela, kanpo eskariak berriro egingo dio ekarpen positibo bat BPGaren hazkundeari, baina ekarpen hori gero eta txikiagoa izango da barne eskariak bere ekarpena areagotzen duen neurrian.

EAE-KO EKONOMIARAKO AURREIKUSPENAK HIRUHILEKOKA (2014ko maiatza)

Urte arteko aldakuntza tasak

	2014			2014	2015				2015
	II	III	IV		I	II	III	IV	
BPG	0,8	1,3	1,5	1,0	1,5	1,7	1,7	1,9	1,7
Azken kontsumoa	0,1	0,7	0,8	0,5	0,8	1,0	1,2	1,3	1,1
Kontsumo pribatua	0,5	1,2	1,2	0,8	1,3	1,4	1,7	1,8	1,6
Kontsumo publikoa	-1,1	-1,5	-1,0	-0,7	-0,8	-0,7	-0,6	-0,6	-0,7
Kapital eraketa gordina	0,9	2,0	2,6	1,1	2,8	3,1	3,5	3,8	3,3
Barne eskariaren ekarpena	0,3	1,0	1,2	0,6	1,2	1,4	1,6	1,8	1,5
Kanpo saldoaren ekarpena	0,5	0,3	0,3	0,4	0,3	0,2	0,1	0,1	0,2
Lehen arloa	1,8	4,9	6,4	3,0	3,9	-1,3	-5,8	-3,4	-1,7
Industria	1,4	2,0	2,4	1,6	2,6	2,7	2,9	3,3	2,8
Eraikuntza	-1,9	-1,5	-1,3	-1,5	-1,1	-0,4	0,3	0,5	-0,2
Zerbitzuak	0,8	1,2	1,4	1,0	1,5	1,5	1,7	1,8	1,6
Balio erantsi gordina	0,8	1,3	1,5	1,0	1,5	1,7	1,7	1,9	1,7
Ekoiak gainera zergak	0,9	1,0	1,1	0,9	1,3	1,5	1,5	1,7	1,5
BPGaren deflatoarea	0,8	0,9	1,0	0,7	1,0	1,2	1,2	1,4	1,2
Enplegua	-0,2	0,3	0,4	0,0	0,6	0,6	0,6	0,7	0,6
Langabezia tasa	15,8	15,8	15,9	15,8	15,8	15,7	15,5	15,5	15,6

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza.

Eskaintzari dagokionez, jarduera adar guztiak suspertuko dira 2014 eta 2015 urteetan, salbuespen bakarra lehen arloa izango delarik. Industriaren bilakaera oso positiboa izango da eta hazkunde tasak nabarmen bizkortuko dira. Barne eskariaren bultzada eta munduko ekonomiaren hazkundeaz dauden igurikimen baikorrak dira joera horren oinarri garrantzitsuenak. Zerbitzuek ere bat egingo dute bizitasun orokorreko portaera horrekin. Eraikuntzari dagokionez, aldakuntza tasa negatiboak bizkor motelduko dira eta adar horren susperraldia iragartzen duten zantzuak gero eta begi bistakoagoak izango dira. Beste aldetik, ekonomia jarduera sendotuko den neurrian, lan merkatuak hobera egingo du, eta 2014ko bigarren seihilekotik aurrera urte arteko aldakuntza tasak positiboak izango dira eta lanpostu garbiak sortuko dira. Hala eta guztiz ere, urteko batez bestean 2015era arte itxaron beharko da

enplegua sortzeko. Urte horretan, lanaldi osoko 5.300 lanpostu baliokide sortu daitezkeela aurreikusten da.